

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

189n. zenbakia/urrilla
1994



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



AKESOLO'tar LINO AITA
(Euskerazaintza'ren 1º Lendakaria)

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

1994-95 IKASTURTEA

**OGEI TA ZAZPI GARRENA
BIZKAIERAZ
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA**

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 15.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

**27.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACION**

Dias: LUNES, MIERCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 15.000 PESETAS

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22 - BILBAO

LAGUNTZAILEA

COLABORA

Bilbao Bizkaia Kutxa

Erakunde itxaropoentsua zan EUSKALTZAINDIA: 75N. URTEA

Aurten beteten dira 75 urte Euskaltzaindia sortu zala eta gauza egokia dala uste dogu urteurren au ospatzea. Ez gaurko Euskaltzaindiak, euskerea maite daberen guztiak eta batez be euskaldunak baiñe.

Eztabaidatu leike euskereak Euskaltzaindirik bear dauan ala ez. Izkuntzen akademiak, Frantze-aldean eta gaztelaren giruan beintzat, agintari gogor-zaleen eragiñaz sortu ziran el0- olako zerbait daroe euren barruan. Euskaltzaindia bera be giro orren zaletasunez sortu da, eta azkenengo 25 urteetan izaKera ori agertu dau.

Dana dala, 1968'ra artean Euskaltzaindiak lagundudu egin dautso euskereari, arrezkero kalte egia ba'dautso be.

1968 URTE NEGARGARRIA

1968n, urte onetan Euskaltzaindiaren barruan benetako matxinada bat izan zan: Urte aretan talde batek, eurak nai eben iraultza erri-giroan sortzeko, izkuntzaren iraultza astnau eben eta curar. nai ebezan arauak asntau ~ ndoren, zin egi::da. Euskaltzaindir: ur-r•eratu ziran. eta arau orreik ezartara beartu eben Euskaltzaindia.

orretarako lenengo Manuel Lekuona kendu bear zan eta euren erakoa izango zan Villasante aukeratu.

Aldakuntza ori egiteko eta arau barri orreik goitik bera euskaldu., guztiak ezarteko, eztabaida gogorra izan zan Euskaltzaindiaren barruan, benetako errazoiak agertu barik, indarkeria ta iraiñak nagusi zirala.

Aurretiaz. Manuel Lekuona'ren izen ona kentzeko izenbako agiri bat zabaldu ei zan euskaltzaiñen artean.

Orrelan ezarri ziran gaur arte balioko lez artzen diran arau kaltegarri orreik, euren artean atxea dala.

Urte ori baiño lenago iraultzaille ta aurkalarari ziranak, giro barri onetan menpeko zintzo dira. Jakiña `diktadura", aginterik onena ei da, norberaren lagunena izan ezkeru.

Eta orrelan jarraitzen dogu, giro orren menpe izate ori alboratu eziñik.

1978 URTE LOTSAGARRIA

Euskera batu orrek amar urte bete ebazala-ta, Euskaltzaindiak Batzar Nagusi bat eratu eban. Bergara'ko Seminario egitekoa zan eta egin be egin zan.

Ara urreratu giñan arazoa bideratzeko erarik egoan ala ez ikusteko eta alkartasuna lortzeko bide batzuk eskiñi be. egin genduzan, baiña dana izan zan alperrik. Euskaltzaiñak ez egozan iñonik entzuteko gertu eia gaur be orrelan jarraitzen dabela uste doan. Gaur entzun bai entzuten dabe baiña ez euren bide okerra ezertan aldatu.

Bergara'ko Batzar Nagusi orretan urtenbiderik ikusten ez

zalako, guk, Kardaberaz taldeak eta Euskerazaleak aurrerengoz zirala, Euskerearen Erri-Akademia dan Euskerazaintza sortu genduan. Baita bear dan lez legeztatu eta Akademi lez agintarien artean onartzea izatea lortu be. Eta akademi-lana egiten jarraitzen dogu. Zori txarrez, ez daukaguz Euskaltzaindiak dituan laguntza ugariak.

1994 BATUAREN 25N. URTEA

75n. urte o regaz batera, euskera batuaren 25n. urtea be ospatzen ei dabe, euren ustez 25 urte oneitan aurrerapen aundia egin ei dau euskera batuuk eta orregaitik ospatu egin bear ei da.

Ez da ori gure eritxia.

Euskera batua onuragarria izan zeitekean egokir:] egin balit::, baiña egin dan lez egin dalako, kaite ikaragarriak ekarri dautsoz eta dakartsoz euskereari' Guraso ta seme-alabak alkar ulertu-eziñik eta erderara joten dabela, ikastolara doazen unieak irakasleari ulertu-eziñik eta euren artean erderaz berba e^giten dab^ola, telebistan esaten dana entzun ondoren, etxekotik euskerarik ez dakiela uste izaten dabe eta orregaitik erderaz, egiten dabe berba, izp>arringiak eta liburuak ulertu-eziñiak dira eta ez dira saltzen... Euskera batua sartu da Ikastetxe Nagusietara be ota or dauko, bear bada, aurrerapeuik aundiena, baii9a zer egingo dogu Ikastetxe Nagusian euskeraz ekin eta et7ia _ erderaz egiten ba•dau? Aurrerapena da ori?

1994 EUSKALTZAINDIAREN 75N. URTEA

Dana dala, Euskaltzaindiak aundikiro ospatuko dau 75n. urte ori: Agertu da izparringietan albistea, ETB'k zabalkunde egin dau "Arra" ekiñaldian eta "Gaur Egun" Barri-Emoteetan. Lejona'ko Ikastetxe Nagusian aste osoko itzaldiak eta batzarrak izango dira, ZER au zuen eskuetara eldu baiño len.

Eta guk zer egingo dogu? Isil-isillik egon? Aurpegia emon?

Euskerazaintza'koak egin dabe alkar-izketa bat Euskaltzaindiaren Bilbao'ko etxean. Egia esan ondo artu ginduzan, baiña ez genduan ikusi ezelako aldakuntzarik egiteko biderik. Ondo jokatu dabela eta orrelan jarraitu bear dabela uste dabe.

Euskerazaintzak agertu eban Izparringian esandako giro onen salakuntza bat. Ikusi egin bearko da zelan ori jarraitu. Gure aldizkarietan be, oraintxe egiten dogun lez gauzak argitzen aleginduko gara...

Baiña itauna au da: Lejona'ra joan, bai ala ez?

Gauzak "lotuta eta ondo lotuta" ikusten doguz. Zertarako joan? Bergara'n izan zan giroa ber-bera ikusten dogu.

LEKEITIO- K S I IK LASS

Bizkai itxasaldean, itxasertzean, ba dagoz toki politak, ikusgarriak eta misteric beteak. Ikasleak atsegiñez ikusi eta goratzen dabezanak eta istori luzea dauken.ak.

Or dago, esate baterako, Gaztelugatxe, Bakio eta Bermeo artean, jaubetasunez Bermeo'rena. Or dago baita Izaro ugarte, bermeotarrak urtero Madalena egunean bertaratu, eta urreratzean tella bat bere aurrean jaurtiten dabena, bertako jaubetasuna urtero ingurukoei gogoratzeko.

Itxas jai polit, ikusgarri eta erromeri antzekoa egiten da egun orretan.

Jaia, bai San Juan egunean egiten dan Gaztelugatxekoa, bai eta Madalen egunean ospatzen dan Izaro'koa he, egunkari, irradi eta abarretan gogoratzen dan lez, ezaupide zabala dago toki orreina.

Baiña itxas ertzean, Gipuzko alderantz etorriaz, Lekeitio uri txukun eta politaren aurre-aurrean, mare-berako andietan bertara oiñez joateko eran, ortxe dago beste ugarte, irla txiki bat.

IZENA

Gaur San Nikolas izenez ezagutzen da.

Antxiña, San Nikolas eta San Sebastian izeneko ermita bat egon zan bertan.

Baiña paperetan Garraitz ugarte edo erderaz isla de Garraitz irakurten da.

Ba dirudi bere aurrean dagon ondartz luzea, Mendexa'ko udalaren jaubetasuriekkoa dana, Karraspio'ko ondartza lez ezagutzen dan plai ederra, lenago, denbora zarretan Garraitzpe deitzen zala.

Lenengo Garraitz'tik Garrazpio sortu zan eta gero Karraspio. Leike onetan lekeitiarrak g eta j izkia k lez ogutzi edo aozkatzeko dauken joeratik aldatuta egotea. Gogoratu lekeitiar jatorrak Jose izena Kose esaten dabela eta gerratean ezagutu neban adiskide batek, bera egoan Gibaja erritxoari, Ikipaka deitzen eutsala.

Garrait..., Garrazpio eta abar irakurten dira "El Infanz~n de Asubieta." ezaugarri edo deituraz Juan Axubita'k idatzitako ianetan.

Aurrean geratzen dan itxas baixari be Bahfa de Garraitzpe deitzen eutsela irakurten da.

UGARTE ORI MENDEXA DA ALA LEKEITIO?

Karraspio ondartza Mendexa'ko erriarena dala jakinda, arri-garri egiten da ugarte au, isla au, Mendexarena ez izatea.

Baiña paper zarretan garbi irakurten da isla au "uriarena" dala, au da Lekeitio're:na, bera uria dalako eta Mendexa barriz eleiz-atea.

Eta bertan sortu ziran denboretako eskribuetan be irakurten da, iñoiz konbentua uztuten ba'zan, barriri uriaren jaubetasunean geratuko zala, konbentu, ermita eta abar.

NOIZTIK EZAGUTZEN DA?

Ez dakigu ermita noiz egin zan.

Dakiguna da ermitaren alboan bertako zaintzalle ziran emakumeen etxea egon zala. Batzutan serora deituak, bestetan ermitañak, bai eta beatak be.

1586n. urtean kalagorriko Gotzaiñaren izenean bertaratu zan begiraleak jaso eban agirian esaten da ermita ori itxura onean zainduten zala eta ondo orniduta.

FRANTZISKOTAR FRAILEEI ESKINTZA

Geroago, 1617n. urteko Uztaillaren 7'an udaleko eta parroki-ko agintariak, batzar baten, ugarte ori Aita Frantziskotaraei emotea erabagi eben, bertan konbentu bat sortu egien. Juan Solaguren Aita zan, aldi aretan, Kantabriako frantziskotarrei, nagus,.

Aldi aretan bertan egoan ermitak iru aldare eukazan. Bai eta alboko etxeun ospitale antzeko bat be.

Parrokiko liburuetan irakurten da gorago aipatu dogun Kalagorriko Gotzaiñaren ordezeko begiralea bertaratu zanean, ango kon-
tuak onartu eta bertako arduradun zan Elvira Maidana seroreari agindu eutsala, ermita aretan oe ugari egozala eta ordeze Uriko ospitale.an gitxi eta oe bat bertarako emoteko, eleizatik kanpora ataratea eta bertako arduralaritza galtzea nai ez ba eban. Eta "freila" arek agindua bete ebal esaten da, baiña oezar bat emon ebal.

1617n. urteko batzar orreTan erabagi zan sortzeko zar, konbentua eroan bertrko eban izena be: Nikolas deuna eta Sebastian deunarena. Esaten zanez, ermita egin zanetik santu bi oneik ziralako berTako zaindari, eta batez be itxastarrak eraspene doboziño andia eutselako bie.

Baldintzetako bat au izan zan: Frantziskotarrak ezin ospatu al izango ebal bertan illeta-eleizkizunik, bertako fraileenak izan ezik eta eragozpen edo baldintza ori jakiñarren Aita Santuagandik baimen berezien bat lortzen alegintzen ba ziran, konbentuko baimena kendu egingo eutsela eta beste ordenaren bateko fraileak bertara ekarri

Erabagi zan baita be konbentu orrek ez ebal iñungo pahroirik eukiko, Uri eta Parrokiko buruak besterik.

Komentua jasotea be frailien kontura geratzen zan, Udalak orretarako lanen ordainketan ezelako beartasunik euki barik.

ZENBAT!' URTE IRAUN EBAN KONBENTUAK?

Onetan esan bear da ez ebal bizi luzerik euki. Eraikitako baimena i617 urtean lortu eta 1650n. urtean aldendu ziral bertatik fraileak.

Euren esanetan urik ezak eta bertan egoten zan giro gogorak ez eutsen aukerarik emoten bear lez euren lanetan jarduteko eta origitik itxi eben.

BESTE JAKINGARRI BATZUK

Frantzetarren gerrak ekarri eban etxea beratzea.

Jakiña danez frantzetarrek ibili ziran inguru onetan XVIII gizaldiaren azken urteetan eta ermita au be 1795n. urtean galdu zan eta geiago ez da barriztu izan.

Gaur, bertan gurtuten zan Nikola deunaren irudi gotikoa, Talai mendiko Jon deunaren ermitan gordeten da.

Eta inguru onetan gabiltzanez esan daigun 1794n. urtean, frantzetarrei aurre egiteko asmotan, Lumentxa mendiaren tontorra bardindu eta pixka bat beeratu egin zala eta bertan 18-ko sei kañoi ipini.

Ain zuzen be gaur iru kurutze dagozan tokian. tontorrerarte elduten dira Kalbarioko Gurutzak.

Aldi aretan, obeto esanda, 20 urte lenago, 1773n. urtean amaitu zan Isuntza zubia egitea. Iru urte lenago jausi zan ordurarte egoana.

Orra Lekeitio'ko Nikola deun izeneko ugarteko jakingarri batzuk.

A. ZUBIKARAI

ZA E`1I..

Zaire"tik nire lagun misiolari Alejandro Aidanondo Idiazabal'darrar n eskutitz bat artu dot, eta Afrika 'ko albiste iakingarri batzuk dakazenez, "Zer" aldizkariaren r1 tllan leelltzat pozgar: i izango dlralakoiln, t';n n aruii.aratulLo dot.

"Kir.stl ., a. Z airci'ko uril urt!ar? egazkinrr: ;a ai, r rta diltik=_I .mn hi,ciurri. _.

I'll ,r e 4'IC1;F1IJ, ., [l'•:i i .i .i .1 dalako, E, dear ?oa` fa,)' f121!!? .., I au k ': ee f autnii'C I);ril ja-t. ,lii ., :kO t.ir eSd1) barik, i aoiu 'ta

ta ,,) ' ;go i' ar;~.th air: erri iasoterl dira, "esrivak lt:calc.urik' Euro} zkn i (> ; tzu ileai: esan deest,uri. rz dta iille W g9lrrt;C baiini , v r r r r %ri;J4 Osi'; t' ,l.ten (te;li i _i t'ct:c 1 blat :,iiiiik l iii, 'lani l' : "b.? IF' : 1CLT, eta _r Iro uf.5't~ IlaCra.rael: itt,ii ~.7.

I+a.;;tI)' uf ,la ra _aaez eltlil :an _rl geurn I'l:.,ak gure alit _st lu~ir,r eben , fgr.alrit a Z.etlk etozan "filme, fi me" deadarka, eta niretzat abestuz: "Aita Alejandro, ~ itt. Al _ 3 n~ -o, guk zu asko :naite .,a.~'~gla, aF:iikvia,~ flaT', ter) d(u~acu~.r,%i_.ako'x, {antu au dt Tlrzatuz abesten :-i.en. IL'nr:ak akle;n.ztieta) ume...

iriii iL uuU ezer :;1,1ift barTu tIs.,0 aor;tit7 trakatu bear daa baina orIe,afuk0 l _ir .1Iasa'ra joav bear, eta ° lengo bidPak ain rllrt> +.x& 1-r.i., ror ib.li ainbeste etandaka kilome_ro Zaire`ko ur_ -hla.rnrains, dirua trukatzekr,?

Mobutu lendakariak eta bere lagunak diru herriko billetee'cin baul osoak beteten dabezana bitarf iaa, <.rra diru barik gosez ilten dago.

| T eagr; lansariak ez dakit .neg;ar ata bar . atli_ko diran. Mal sa haiek i ,ibeteko Uraren ordez iru i.ta°_rien bai.ioa artzen uau, eta osagltleai< ere ez asko geiago. Europar batek olango lansaria lotsagarri dalako ez leu-ke artuko, baiña emengoak pozik eskuratzen dabe, esanai: ordaindu deuste!

Maisuak onan ezin dira bizi, eta eskolak eta ikas-leak bertan itxita, solora doaz lanean, zerbait bizigarri eskuratzeko. Emengo agintariek ez-ikusia egiten dabe, eta dirua pillatzea bakarrik dabe gogoko.

Lurra berez oso aberatsa da, baiña olango agintarie-kin zer?...

Egunero entzuten dogu geure buruen ganean Mobu-

tu'ren egazkinen "run-run" otsa. Angola'ra doaz ango Sab:nbi lagunarentzat armak eroaten. Onantzakoan diarr)anreak ekarriko dabez Mohutu'rentzat. Onan aberatsak beti aberatsago. eta txiroak txiroago, Betiko kclaua...

Bai **na** da guztiz ere, erri onek kantu, dantza eta barri: egiten dau. Alahearrak inta balego lez, esaten :ia'bI: Zer *egir.tgo* dogu ba? Alan izan bearko dau! Ezin zuzt:ndu dana, ;zirt da!

Egunen batean zairetarrak itx.altuka al dira! Eta gau batez onetan, eguzki beteak ez biida ere, ilaTgiaren t rti-argiak, beintzat, argi egingo al dau!

Jaungoikoak ba-daki ik.t a'az zuritzen, baita okerre-tik aa tena ateraten ere

Aitlanendo'tar Alejandro. S.J.
(Goikoetxea'tar Iñaki'k hiaidua)

? LT: EJ T?, a DE JNARFN
a T-JA LI E 6' etY'Y.a",V

Ozendu bediz txuntxun da turut a.,
geure Deunaren GAU .i".YA da-ta!

1) Aharar danok, egun aundi ontan,
pozaren pozez ta biotz batez.,
geure Zaindari dan Prudentzi Deuna.
aritzen dogu ots aundiz. OZENDU BERIZ..,

2) Plaza Barria ta Prnbintzi-koa,
ie :dez, apzlñez, argiz bYterik.,
C.)eiñu goxo bat iñoiz edo berriz
erltzuteli ,Ic gu poz-pozik. OZENDU BEI IZ...

3) Doiñu t'argia zeruruntz ba-doyaz,
era berean, geure otoya,
gartsuki eskatzen: "Zaindari maitea,
emon eiguz.0 BAKEA!"

Josu Exea. GASTEIZ
1989'ko Jorraillaren 28' n

TRAPU ZAARRAK

Erosten ditut trapuak
praka zaar urratuak
gona gorri zaarrak eta
atorratxuak
Trapu zaarrak!
Atera, atera
trapuak saltzera
Nik erosten ditut
modu onean
Erditan prakak
kuartuan abarkak
ta burni zaarrak

BARRIRO

Une onetan aspertuta ez dagoena edo gorra eta itsua da, edo benetan auteskundeekaz gauza asko aldatu daitekela sinisten dau, eta, beraz, ausnarketa sakon bat egiten dago zeineri bere botoa emon pentsatuz.

Asiera batetik argi daukanak zein dan bere autagaia, edo zein alderdi urbiltzen dan bere pentsamoldera (edo bera alderdiaren pentsamoldera), su eta gar ibiliko da bere alderdi edo pentsakeraren alde lanean. Au ez da sekula ere ez aspertzen ez nekutzen.

GU BEGIRA

Badaukaeuz danak adi, eskua luzatuta geurea ere luzatu daigun. Dana da eskeintza, dana berbea emotea, dana egingo da, dana konponduko da. Edozerk balio dau botoaren txartela lortu ezkerero.

Langabeziaren arazoa dala, ba... emendik aurrera edo ez da egongo langabeturik edo egon badago itzelean biziko dira euki-ko dabean laguntzen bidez.

Nonbaitera eltzea saila dala, ori ere ez da arazoa egingo dira bideak eta. Arrantzaleak aserre dagozala, lasai... egingo danagaz laster egongo dira sareak arrainez beterik-eta (gainera bolanta sareak erabili barik). Lasaitu zaitzeze danok, bizitza onetan eriotzak izan ezik danak dauza konponketa eta.

AUKERATU?

Auteskindeak, aukeratzeko ordua. Baina zein aukeratu? Apurka-apurka auteskundeak dendara erosketak egitera joatea bezela da: Xaboa bada, danak izten dabe erropea garbi-garbi, zuri-zuri; kolonia dala, danak dira oso onak gizonak edo emakumeak erakartzeko; danatarikoa dago, moskortzen ez dauan ardu, garagardo zein wiskya, loditzen ez dauan koipea, Sanson baino indartsuago biurtzen zaituen esnekia, burusoilak direnak zapazo biurtzeko moduko txanpuak... Ez ete da politika merkata aundi bat? Zeinek obeagoa eta merkeagoa eskeini!

Eta ori gitxi bada, itzaldi edo "mitinetan" politikariak euren utsak autortu eta lorpenak azaltzen baino denpora geiago emoten dabe arerioak erasotzen. Beti dago katuren bat "zapi" esateko eta norbait erruak botatzeko.

ETA EUSKERE A ZER?

Baina goazen aldizkari au mugiarazten dauan arazora: EUSKERE A. Egunekaz euskeraz dakien politikariak edonon erabil-

tzen dabe, eta gitxi dakienek nonai aalegintzen dira dakien apurra erakusten.

Are geiago: Ez dakienek ere inoiz baino sarriago esaten dabe "agur", "egunon", "arrastion", "ongi etorri" eta antzera-koak oizkoan erabiltzen dabean "buenos dias", "adios", e.a.-ren orde z. Izan ere, auxe dabe urrengoko auteskundeetara arte gure izkuntza erabiliko daben sasoia; ordura arte dakiena, aaztu egin balebe moduan jokatu-ko dabe, salbuespen arrigarri, miresgarri eta ooregarriak izan ezik.

Abertzale direnak zein "A-ver-que-sale" direnak, bertokoak zein kanpokotik datozenak, jakin naiz jakin ez, danak aaleginduko dira berbaren bat euskeraz egiten, ori ere botoak lortzeko bidea da eta.

BENETAKO EUSKALTZALEAK?

Eta ez ori bakarrik. Geienak euskaltzale amorratuak balira bezela, euskeraren etorkizunagaitik oso kekkatuta dagozala eta beste inork baino geiago egiten aaleginduko direla zin egingo deuskue.

Pausorik pauso, oinez, danak dagoz prest ibilaldia egiteko, euskera "asto-pistetatik" atara eta autopista" nagusietara eroateko. Gauzea burua agertzea eta botoak lortzea da.

Sasoi baten herbeak balioa eukiten eban, baina gaur egun esandakoak aizeak daroaz eta idatzitakoak urak eroaten dauz.

Dana geratzen da "garbi-garbi" eta "zuri-zuri", beraz GORA ZURIKERIA!

Maquiavelo biziko balitz arrituta geratuko litzateke zenbak ikasle aurreratuak daukazan bera bizi izan zan baino mende batzuk beranduago.

Gaurko aibat politikari sasoi aretan idatzi eban "Printzea" liburuaren protagonista nagusiak biurtu eitekezan.

ETA BOTO EMOLEAK ZER EGIN?

Eta boto-ernoleak? Ikasgaia ondotoso ikasita daukagunez, ainbeste aidiz engainatuta sentitu garanez, orrenbeste berba ez danez betetu, POTR... (parkatu! nire odol berotasunak ixildu bearrekoak esatera naraolako) KOKOTERAINO GAGOZ!

Daukagun ikuspegi politikoa ikusiz, bateri baino geiago agertuko jako zalantza: botoa emoten joan ala ez.

Aurrekoetan, batez ere asierakoetan, zalantza zeineri botoa emon izaten zan.

Baina ez dakit gaur egun zein dan zalantza bietatik aundiena, batez ere azkenengo aldietan egon dan "abstenzid" dalakoa zenbatekoa izan dan ikusi ezkerero. Geroago eta aundiagoa.

AZKEN BATEAN...

Egia esan, euskerea askoren bizitzaren ardatza dan arren, badira beste gauza batzuk defendatu bearrekoak: lana, ekonomia, zaarren erretiroa, osasuna, gazteria, kulturea... Orrei ere erantzun bat emon bear jakenez, kokoteraino egon arren betetu bako berbekaz, berriro ere gure pentsamoldetara geien urbiltzen dan aldediari botoa emon bearko jako.

Bearbada ez da onena izango, txarren artean onenatarikoa baino.

Enrike Itxasalde

ARGIUNEAK

AFRIKA'KO ERRI-OLERKIA (Mundo Negro. Ekaina)

Biotzak negarra dario

Aurtxo il zait
 lur zuriez estali (1)
 nai nuke
 neure aurpegi.
 Neure senarraren txabolan
 lau aur sortu ditut,
 laugarrena bakarrik
 bizi.
 Neure biotzak negar dari
 baña auzo onetan
 tristurarentzat ez dago
 tokirik.



Erditu ondorengo kanta

Zoriona dario ene biotzak
 eta egaka dijoa abeslari
 oianaren arbolapean;
 nere baitan ama dedala
 txoritxu bat arrapatu det
 nere sarean
 txikia oso txikia.
 Txoritxuakin ene biotza
 preso daukat sarean.

Erditu-ta, eskerrak

Zuri danen Sortzaille,
 zuri Indartsu orri eskeintza
 landara txikitxo au
 arbol zaarraren ematiza.
 Zu zera Nagusi
 Khmvum, Khmvum,
 gu zure seme-alaba;
 landara berria zuri
 eskeintzen dizut.

(1) Beltzen artean, zuria da dolu-miñak
 agertzeko margoa.

ALARGUNAK NAGUSI

- Ez omen dago alargunak bezin ugaria dan Sindikatorik Espāni osoan.
- Bai, lengo egun batean bost alargunekin egin nuen topo kale ertzean. Larrosak baño panpoxago zoazte –esan nien. Badakizu zer erantzun zidaten.
- Zer?
- Lotaratzen geranean, lasai sartzen gera geure ogean.
- Zergaitik? Esan nien.
- Badakigulako gauero gure senarrak nun diran.
- Nun dira, ba?
- Aiek zeruan eta gu glorian.



"KATOLIKO EKINTZA" BERRIRO

- Zenbat on egin zuen garai bateko Katoliko Ekintzak.
- Pio XI'garrenak asmatu eta onartua, mundu osoan zabaltu zan; baita gure artean ere.
 - Asieran ez ain errez.
- Ez, guda bukatu ondoren Katoliko Ekintzari "Española" ipiñi zioten izan-osagarri.
- Makiña bat burruka egin genduan izen ori erditik kentzeko.
 - Nekez, baña kendu zuten. Emaitza ederrak eman zituen eta gero, uste gabean, itzaltu egin zan.
 - Ba, orain, berriro asi nai dute Ekintza orrekin.
 - Bearko da zer-edo-zer giza-bide au suspertzeko.

EUROPA

- Europar gerala-ta, Europa osoan ibilli genezake pasporterik gabe.
 - Orrek lasaitasuna ematen dio biotzari eta askatasuna, Lourdes'era joaten giñan. Ama Birjiña ikustera; baña, baita ere, askatasun ori probatzera.
 - Emen geuden guztioak kaiola batean sartuta bezela.
 - Orain, berriz, afrikatarren Europa'rako atea ere emen dago.
 - Franco'k eduki ginduzen kartzelan sartutakoen antzera: kanpora joan ezin.
 - Geu izan gara Europa orren sortzailleak eta orrelako ar-emanik ez zaigu falta izan millaka urteetan, eta emen egon gara irten eziñik.
 - Pozgarria da berriro atek irikita ikustea.




CARLOS ANDRES PEREZ

- Zein dogu jaun ori?
- Venezuela'ko Lendakaria izana. Kartzelan sartu dute.
 - Kartzelan sartu Lendakaria! Mando-eulia eltxo biurtu al da?
 - Mando-eulia zanean etzuan iñork kartzelan sartu. Benetako Demokrazia alakoa bear dau: lendakaria izanda be, txarto egiten ba'dau, kartzelara. Nork izan

dau biboterik Franco'ri orren beste egiteko? Franco'ren denboran obeto bizi omen giñan...

FRANCO ETA PAULO VI PULSUAN

- Gorroto eutsoen Pablo VI'garrenari geure arteko faxistek.




- Pio XII'garren gurtzen zutenak, oiek berberak zioten gorroto ondoren etorri zan Aita Santuari.
 - Bai, ba; batek euren alde jokatu eban; baña besteak ez.
 - Or dago koska guztia. Katolikoak bai, Kristo bera baño geiago, ori bai; baña, Aita Santua, geure mende; bestela, ez da Aita Santua, Mutil-Zar Santua baizik.
 - Franco'k aizkenak fusilatu ebazanean, mundo guztia jeiki zan aurka, baita Pablo VI'garrena be. Eta orrek emoten eutson miñ Generasilimoari.

GURUTZEA ALA LAUBURUA?

- Askok gurutzea kendu dabe euren paparretik eta lauburua imiñi zergaitik?
 - Gurutzea gurea ez dalako eta lauburua bai.
 - Ori zeuk sinisten dozu?
 - Ba, zer esango dizut, lauburua zaarragoa da geure artean gurutzea baño.
 - Zenbat zaarrago?
 - Bosteun urtetik millara gutxienez.
 - Gurutzea noiz sartu zan geure artean?
 - Nik esango neuke oraindiño ez dala sartu batzuen biotzetan.
 - Ori alan izan da, baña historian zear noiz agertu zan geure artean Kristautasuna?
 - Euskalerrria zabalagoa zan; Pirene-mendietako alboak ere euskaldunak ziran eta or laister ageru zan Erroma'ko bideetatik.
 - Erromatarrek ekarri al eben Kristautasuna armen bidez?
 - Iñolaz ere ez; baña euren artean kristauak ere etorri ziran onuntz. Emeterio eta Zeledonio ere militarrek ziran eta Kristo'rengaitik bere bizia eman zutenak, eta geure artean oso mai-teak.
 - Orduan milla urtetik gorakoa da geure artean gurutzea?
 - Milla urtetik milla ta bosteunetara.
 - Eta, lauburua?
 - Lauburua indoeuropeak ekarri zuten lenengo Araba eta Naparroa'ra, erromatarrek etorri baño milla urte lenago.



- Eta Bizkaia eta Gipuzkoa'ra?
- Lareun urte erromatarren aurretik Zeltek, bere ezpata zorrotzez, geure mendi gallurrak arrapatu zizkiguten eta andik, geu menperatu. Eurena zan lauburua.
- Orduan, ez bat eta ez bestea ez dira euskaldunak?
- Nik esango neuke biak dirala euskaldunak, beste kultura agerpen asko bezela, ainbeste urteetan zear, geuk geuretzat artu izan ditugulako.
- Baña, guk, euskaldunok, iru milla urte baiño geiago daukaguz, eta, oiek ez badira, geure ikurra zer da?
- Amabost milla urteko kobeetako irudiak dituguz zaarrenak: Zaldiak, bisonteak, zezanak, oreiñak, auntzak... Ba da, ordea, Pirenee-menditako leize batean irudi polit bat, geuretzako modukoa, mozorroz jantzitako azti baten irudia: abere baten antza du, adar eta guzti, eta ezker eskuakin txistua jotzen ari da...
- Gurutzea kendu bear ba'da, lauburua ere bai eta azti ori artu bearko dogu geure ikurrin.



GORPUTZ

Gorputz-Egunean alkar-izketa au entzun neban abade bat eta iru aurren artean:

Apaiza.— Maitasunaren Eguna degu gaur: Jesusek bere Gorputza jaten eman zigun eguna. Bera jaio zan gure lagun izateko; Eukaristian gelditu zan gure janaria izateko; eriotzara joan zan gure okerren ordaña emateko eta zerura igo zan gure saria izateko.

1.— Zergaitik ematen digu Jesusek bere gorputza gure janari?

Apaiza.— Maitasunez eraginga egin zituen Jesusek bere bizitzako gauza guztiak, jaiotzetik eriotzararte; baña, Zerura joateko garaia eldu zanean, gurekin egon nairik, Eukaristia asmatu zuen.

2.— Noiz asmatu zuen Jesusek Eukaristia ori?

Apaiza.— Il bear zuen besperan, Ostegun Santuko azken aparian, orduan asmatu zuen Jesusek Eukaristia.

3.— Nola egin zuen Jesusek asmaketa ori?

Apaiza.— Afaldu ondoren, mai-gañetik ogi bat artu, Au nere Gorputza da, esan-da, jaten eman zien Aposto-luei.

1.— Nola egiten da ogi ori Jesusen Gorputz?

Apaiza.— Zenbat kilo ziñan zu jaio ziñanean? Iru kilo edo lau kilo; orain berriz, 30 baño geiago dituzu. Nundik, ainbeste kilo aragi eta ezur? Ogia jatetik Ogia jaten dezu eta zeure aragi biurtzen dezu. Zuk ain errez egiten dezu-na, ez al dezake Jesusek egin, ogia bere Gorputz biurturik? Gañera, Jesusek esaten duena, egin egiten da: Itsuari "ikusi" esan eta itsuak ikusi.

2.— Apaiza. Ogi ori jaten degunean, zer gertatzen zai-gu?

Apaiza.— Berarekin alkartu egiten gerala; danok egiten degu bat Berarekin, eta danok bat alkarrekin.

3.— Danok bat ba'gera, alkar maitatu bearko degu.

Apaiza.— Bai, bai Jesusen Gorputzaren egun onetan, Alkar-maitasunaren Eguna ere ospatzen degu: Caritas'en Eguna.


1.— Itz politik esatea al da alkar maitatzea?

Apaiza.— Baita ori ere: Itz itsusiak esatea baño ohea da itz politik esatea.

2.— Maitatzea, ori bekarrik al da?

Apaiza.— Maitatzea egintzetan mamitu bear da; bestela, itzak aizeak eramaten ditu.

BARTOLO ARROPAIN'GO



UMETXOEN ESKUBIDEAK

- Nazioarteko Billerak 1989'garren urtean aldarrikatu zitun Umetxoan Eskubideak.
- Euskubide oiek danentzako dira jakin-garri: Agintarientzak, errientzat, gurasoentzat; baita, ume oientzat ere. Euak ere ezagutu bearko dabez.
- Etorkizuneko Gizarte obe baten eskubideak dituzu; Zuzentasun eta pake obean bizitzeko eskubidea eta lan orretan eurok ere parte artu bearko dute.
- Nik gauzatxo bat ez det ondo ikusten gaur eguneko gizarte onetan.
- Zer da zer ori?
- Artxoengandik asita gaztedi osoan, maiz aotan erabiltzen dabez euren eskubideak; baña, eginbearrik ez. Egin-bearrik gabeko gizartea dirudi: Danok, esku-zabal artzeko, iñor ez emateko.
- Tarteka ori egia da; baña, badira oraindik eskubide-rik gabeko umetxoak pillaka bazterretan eta ez bakarrik lrugarren Mundu orretan. Geure etxeetan ere bai.

IRUZKINA

PAULIN SOLOZABAL jaunaren idazlan bat dakar EUSKERAZAINTZA iru-illabetekariak. Mai-xu edo akademi-maillako lana da (Ikus EUSKERA-ZAINTZA, uztaila-irailla, 1994, 5-20 orr.).

Idazlan auxe zerbait iruzkindu (comentar) gura neuke. Zeatzago esanda: lan berorrek nire baitan arrotzen dauan ainbat aztergairi neure erantzuna emon. Beste baliozkotasunik ez dau izango. orrexe-gaitik.

Beste esakera batez: jakingai batzuk dirala-ta, nire barruan irakiten daukadan "lapikotxoari" estalkia kendu apur-apurtxo baten. Ez dot beste asmorik urrengo datozan lerroetan.

1.- EUSKERA ETA BASERRIA GAUR

PAULIN idazlearen lanean auxe irakurten dogu:

"Juan Antonio Mogel abadeak Peru Abarkaren aoz: Euskal kulturaren Ikastola Nagusia "Basarte" (dala): au da baserria. Izkuntza jatorra, jakintsua eta aberatsa nai dabenak, baserri-
ra joan eta antxe aurkituko dau bere guraria asetzen daben izkuntz edertasuna.

Euskera jatorra eta aberatsa nun? Galdera oni erantzuteko guk be, zurtasun bidetik bagabiltz, bardin esan bear dogu. Euskeraren benetako jakintsuak baserrian dagoz. Izkuntza onen jakituri, zertzelada eta zirkilu guztien iturria, antxe dago.

Edateko uraren billa, iturrira joan bear da. Euskera ederraren billa gure baserri aintzatsuetara, antxe dagoalako gure ama izkuntzaren sort-iturri, garden eta aberatsa, asebetaea."

Bir-ekarri dodazan itzok 1894-garren urtean –eun urte leenago– irakurri izan baneuz, onartuko neukezan bearbada.

1994-garren urtean idatziak izan diranez gero, zenbait jakingarri dala-ta, egi-egiak badira be, euskeraren ZER-DAN (Orixek esango leukenez) osoari gagokiozala, gutxien-gutxienez, EZTABAIDAGARRI dirala esango neuke.

Beste berba argiagoz: ezertariko oarrik eta zeatzmeatzik esarri baga, ez dot uste gure egunotan onar daitekezanik. Zergaitik diñodan au beerago argituko dot.

Juan Antonio Mogelen garaian egia izan zeitekean. Idazle entzutetsu au amozortzigarren gizaldiaren bigarren erdi-aldian bizi izan zan, 1804-garren urtean il zan-eta (oker ez banago). Au da: orain BEREUN URTE, gitxi gora-beera.

Arrezkero urak bide luze-sakonak urratu izan ditu lurraren azalean. Eta bizitzearen eta giza eta euskal kulturaren ainbat eremutan be, aldakuntzak eta aldakuntzak izan dira, gure izkuntzari dagokion egoera guztiz itxuraldatuz.

"Ama gorularien eta euskal ferietako bei saltzailleen" berbetaez –Paulin beraren itzak bir-aitatuz ezin daikegu gaurko mundu onetan ibiltaldi aundi-aundirik egin, nik uste.

Inork ezagutzekotan, Orixe aundiak ezagutuko eban Paulin idazlearen esanez "euskal izkuntzaren klasikoak, jatorrak, itza gogoz eta jakituri aundiz plazara atara nai dabenak" diran baserriarren izke-
rea.

Gipuzkoako Orexan jaio eta amazapi urtera arte, oker ez banengo, Nafarroako Huitzin bizi izan-eta.

Geroago, urteak joan eta urteak etorri, "San Agustinen Aitorkizunak" euskal itzulpena argitaratzeko, naikoa izan ete eban berak Orexan eta Huitzin entzun eta ikasi eban "gorularien", artzaiñen eta ikazkiñen berbeta? Ez dot uste. Baserriko berbakuntza utsagaz San Agustinen "Confesiones" deritxan liburu sakona eta zaila euskerara itzultzera joan izan balitz, ezin izango leukean, ezelan be, bere lana burutu.

Au adibide bat baiño ez da. Onango argigarriak ainbat eta ainbat ekar daitekez. "Egoitzak" liburuarena, esaterako. Santa Teresaren "Las Moradas" liburuaren euskal itzulpena da.

Naikoa izan ete eban Santi Onaindia karmeldar-
rrak, berak umetan eta gaztetan Amoroton entzun eta ikasi eban berbeta, gero EGOITZAK izeneko euskal itzulpena ontzeko? Jakin gura neuke zer erantzungo leuskigun Aita Onaindia idazle oparotsuak.

Ez. Gaur-egun baserrian ikasi daikegun eta andik ekarri geinken euskera utsa ez da gauza gure gizarte onetan urrun-urrun joan aal izateko.

Euskera arlotea ez. Euskera landua, jantzia bear dogu, aal danik eta jantziarena, gure inguruan irakiten dabilkiguzan kulturazko eta jakintzazko gaiak, eus-

kerakera ulergarrit eta nornairentzat erakargarrit plaza-ratu aal izateko. Jai daukagu, osterantzean.

"Euskera osasuntsua, bizia ta jatorra gure baserrian bizi izan da, eta gaur bere, euskera joria, antxe entzuten dabe gure belarriak", dirausku maixu baten antzera Paulin adiskideak.

Bai?

Ni-neu semez baserrikoa baz. Baserrian jaio eta baserrian bizi izan naz ia neure bizitzaldi guztian. Baserrian ikasi neban euskera. Ez naz, ez, damu eta guztiz esker oneko agertzen naz baserriko euskarentzat.

Euskeraren bizilekua izango zan baserria joan diran mendeetan. Neu be orretantxe nago. Joandakoak joanik dira baiña, eta gaur eguneko izan bear dogu buruan eta gogoan, gaurkoa eta etorkizun doguna.

Gaur esan ete daikegu baserria euskera jatorraren bizileku eta gordeleku dala? Gauza batzuetan, bai, bearbada. Beste batzuetan, oster, ez eta ez.

Nire esan onen egiztagarri, neuk-neuk neure bizitzaldian zear neure begiz ikusitakoa eta neure belarritz entzundakoa ekarriko dautsuek gogora.

Ara:

Orain ogei urte eta geiago, ni Morgan bizi nintzan. Morgako erria, dan-dana, baserria da, baserri utsez osoturiko udalerria.

Ara joan nintzanean, bertan entzuten neban euskera begiko eta gogoko egiten jatan ainbat gauzatan. Iñon eta iñoiz entzun ez nituan esakerak eta berba batzuk be antxe entzun nebazan leenengo aldiz. Aditza, barriz, orain UGEI URTE, gero!, txarto eta txarto erabilten zan. Guztiz txarto. Negargarri eta lotsagarri.

1970-garren urtean, Morgan bizi nintzala, aintzuzen be, bizkaierazko aditza zala-ta, liburu bat argitaratu neban. "EUSKAL ADITZA-BIZKAIERA", beronen izena. Liburu onen sarreran auxe niñoan:

"Ara! Aditza ez dago ondo-ondo Bizkaian. Ez, ez!

"Ezautu daust" (nau), "ikusitakoa" (dot) eta onango ezakuntza ganorabakoak eurrez entzuten doguz.

Aundien artean be bai. "Alkate egin doste", iñostan oraintsu gizon batek, "Egin nabe", esan baleust, ederto.

Bai, bai. Aditza galtzen doakigu. Aparkapurka zarpiltzen, ondatzen. Atzerakada au, barriz, —nork ukatu lei?— galera aundia izan euskerarentzat".

Aita Lino Akesolo karmeldarrak, euskeraz gorengo idazlea izan eta urte gutxi dala mundu onetatik joan jakunak, eta garai aretan Donostian bizi zanak egin eustan "Zeruko Argia" aldizkarian liburu aren kritika. Eta auxe emoten eban aditzera: Bizkaian aditza txarto baegoan, Gipuzkoan ez egoala bape obeto.

Aita Linoren esan onen agergerri, auxe erantsiko dot. Morgara etorri aurretik, ni Angiozar-en bizi izan nintzan bederatzi urtetan. Angiozar Bergarako auzo bat da, naiko aundia. Aldi aretan Zumaiako gazte jator eta begi-begiko bat bizi zan bertan, euskera errez eta ugari-ugari egiten ebana. Arek be, baiña, aditza txarto eta txarto. "Ikusi-dizut" (zaitut) eta onango adizki traketsak entzun eta entzun egiten nautsazan. Nik, barriz, esan eta esan: "Ori orrela ez. Aditza txarki erabiltzen dezu. Ori onela esan bear da".

Eta berak erantzun: "Bai, zuk diozun bezela izango da, baiña nere errian erdiak baiño geiagok onelaxe itz egiten degu".

Neure erria aitaturko dot, azkenez, aditzaren kontu onetan.

Guk leen-leen eurrez eta eurrez erabilten genduzan adizkera txairoak eta dotoreak orain ia guztiz galdurik dira, leen-aldian, batez be.

"Zuk ni atzo ekarri NINDUZUN", , "Nik zu... ZINDUDAZAN", "Zuk gu... GINDUZUZAN", "Guk zu... ZINDUGUZAN", "Guk zuek... ZINGUDUEZAN", eta abar, gaur gitxitan eta gitxitan entzuten dira. Tamalgarria!•

Nire lobak onan esango dabe: "Zuk ni atzo Gas-teiz-en ikusi NOZUN" (ninduzun), "Nik zu ZATUTEN" (zindudazan), "Guk zu...GOZUZEN" (ginduzuzan), eta abar. Au da: orain-aldiko jokoei (ikusitakoa, ZAITUT, GOZUZ...) leen-aldiko -n ezaugarria erantsita.

Emendik eun urtetara, euskera bizi badadi (biziko al da!), aditza guztiz bestelakoa izango da, beste norbaitek eta nonbaiten (ez baserriak eta baserrian) onik ataraten ez badau.

Bai! Aditza GAUR eta, ikusi dogunez, ASPALDION baserrietan eta errietan galbidean edo galzorian daukagu, zoritxarrez.

Guzti au kontutan artu ezker, euskera ikasteko baserria joan? Aditza ikasteko beñik-bein, ez eta ez! Aditzaren arazo onetan, baserria gordeleku barik, GALDULEKU ez ete da, gero?

Norbaiti oker nagoala baleritxo, eta ori agertu eta egiztatuko baleust, poz-pozik izango nintzateke.

"Euskeraren benetako maixuak baserrian dagoz", dirausku zalantzarik baga Paulin maixuak.

Bai?

Gure belaunaldi onetan euskeraren irakaskintza-esparruan izan doguzan maixu eta irakasle aundi-bikaiñak, baserritarrak izan ete ditugu, ba?

Nik-neuk neuretzat euskera ikasteko edo erdi-ikasteko izan ditudan maixuak ekarriko ditut, labur-labur.

ARTURO CAMPION, leenengo. Aren "Gramatica de los cuatro dialectos literarios" deritxan idazti mardula, arrobi agortezina da euskera norberegantzeko. Iruñan jaio zan, oker ez banago. Ez da, beraz, baserritarra, uritarra baiña.

RESURRECCION M^a DE AZKUE, urengo. Aren "Morfología vasca" izeneko liburua guztiz ezagutua da, eta ikasgarri eta aztergarri euskeraren alorrean. Baita aren iru izkuntzatakako Iztegi lodia be. Lekeitia-rra izan zan, eta kaletarra, ez baserritarra.

LUIS DE ELEIZALDE dator gero. Gipuzkoerazko eta bizkaierazko aditza ikasteko eta sustraiz aztertze goren-gorengo maixu jakintsua. Berrogei urte baiña geiago izango dira, aren "Conjugacion vasca sint tica" izenaz ezagutzen dan liburua aztertu nebala, eta itzelezko mesedea egin eustan. Bergararra izan zan, baiña ez baserritarra. Uritar geiago, baserritar baiña.

SEBERO ALTUBE dakart ondoren. Euskal joserakera dala-ta, irakasle ezin ohea. Aren "ERDERISMOS" izeneko liburua guztiz ezaguna da euskaltzaleen artean. Badauko beste idazkun bat be, gutxiago ezagun dana: "Observaciones al tratado de Morfología vasca" da beraren izena. Guztiz irakurgarria au be. Arrasaten, Gipuzkoan, munduratu zan eta Gernikako kalean bizi. Uritar geiago au be, baserritar baiña.

NIKOLAS ORMAETXEA, "ORIXE" aitatu neuke azkenengoz. Berariaz euskera ikasteko libururik ez dauko, nik dakidala. Aren liburuak baiña, ur gardena oparo-oparo eta eten barik darion iturri baten antzeko dira, euskeraren erabilkeran trebetzeko. Jakitezko bururakizun uts edo "conceptos abstractos" diralakoak, filosofiazko eta jakintzazko gaiak euskeraz zelan adierazo jakiteko, batez be, gure belaunaldi edo mende onetan izan dogun maixurik gorengoena dogula esango neuke. Irakurri eta aztertu, adibidez, aren "URTE GUZIKO MEZABEZPERAK" eta "KITON ARREBAREKIN" idazkunak, eta ikusiko dozu euskerari buruz jakitez eta bitxi eder-zoragarri gainezka dagozan idazkiak dirala. Jaiotzez eta gazte-gaztetan bizitzez baserrikoa. Aren euskera, alan be, ez da baserri-baserriko euskera utsa, izkuntza ikasi-ikasía, landu-landua eta txukuna baiña.

Beste maixu batzuk be izan dodaz, baiña garrantzizkoenak oneexek izan dira niretzat.

2.- EUSKERA ETA EUSKALKIAK

Bizkaieraz dator Paulin jaunaren lana, bizkaiera uts-utsez.

Euskera euskalkietan bizi izan dana eta gure egunotan be onantxe bizi izan dana ez dakian batek Paulinen lana irakurriko baleu, bizkaiera baiña beste euskerarik ez dala uste izango leuke agian.

Eta au ez izan egia. Bizkaiera euskera da, baiña euskera guztia ez da bizkaiera. Bizkaieratik at bada euskerarik, bada euskera ederrik eta erabilgarririk.

Euskalkietan sailkatuta bizi izanak eta gaur be onantxe bizitzeak bada kartso arazo latzik eta konpongaitez gure euskera oni.

Egoera ezin-besteko au dala bide, izate larrian dakusgun berbakuntza onentzat bizigarri, indargarri eta sendogarri izango litzateken zerbait egoki bat, aal danik egokiena, aurkitzeko, geureak eta bost egin bear ko gendukez euskaldungoa eta euskaltzalegoa, batez be, egiten dogun guztiok. Egiteko onetan, baiña, ez dakit asmatuko dogun.

Gure artean daukagun aditu-eziña euskerarentzat guztiz kaltegarri da, ene eritxiz.

Euskalerría txikia da inguruko errialdeen ondoan. Eta euskeradunok edo euskaldunok osotzen dogun taldea askoz mirrinago oraindiño. Gure indarrak eta aalbideak bateratu egin bear gendukez, orrexegaitik. Baiña, bai zera! Bakoitza bere bidetik doa ainbat jokaeratan.

Aintzina-aintzinako kontakizuna datort burura.

Latin berbakuntza errietan galzorian zala, an ei ziarduen latin-zaleek bata-besteagaz ika-mika:

– "Au onan idatzi bear da". "Ori orretara egin bear da", eta abar, etenbagako ekitaldi antzuetan eta burrukaldi galgarrietan...

Bitartean, latin galdu ei zan erritarren aotan, eta agur latin-zaleen zorigaitzoko eztabaida guztiok.

Euskaldunoi be beste orrenbeste jazoko eta jakun bildur naz. Bildur eta bildur.

Euskeraren bizitzea eta iraupena: ona gure izkuntza dala-ta, daukagun eginkizunik larriena eta latzena. Egiteko onixi lotu bear gintzakioz, beste ezer guztien gaineetik.

Gure egunotan bizkaiera berariazko larrialdian aurkitzen dala diñoenak badira an eta emen. Ez-aldi eta ondo-ez onen zegaitia eta okerra "besteri", euskara batuaren eragiñari, batez be, egotzirik...

Bizkaieraren eta edozein motatako euskeraren arerio aundia, besteak beste, erderak dakartsan galteza da. Ego Euskalerrian, gaztelarak, eta Ipar Euskalerrian, frantzerak.

Bizkaiera eta euskera bera bizirik eta onik atarateko bidea, ez da arpegitik beera negar-malko lodid-

garratzak dariguzala deadar eta arrantza egitea, idatzi eta idatzi egitea, eta ONDO idaztea baiño. ONDO IDATZI!

Edozein euskalkitan idazlan bat edo liburu bat eskuetan artu, eta deklinabidean uts, aditzaren erabilkeran uts, oskeran uts, eta idazkera ganorabakoa dakarrela ikusten badozu, eskuetatik jaurti egingo dozu idazkun ori, iguïña besterik ez dautsu emoten-eta.

Euskeraren salbakuntzarako, egin eta egin, egin bear dogu, lan-da-lan egin, idatzi eta ONDO IDATZI, zein bizkaieraz, zein...

Eta nun dagoz, nun, idazleak? Batez be, idazle ONAK? NUN? Or dago untzea! Orixe itaun larria!!...

Euskalkiak dirala-ta, badaukagu beste gorabeeraxo bat. Emen be neure eritxia agerrazo gura dot.

Batzuen ustez, euskeraz idazterakoan, norberaren euskalkian bakarrik egin bear genduke. Bizkaitarrak bizkaieraz bakarrik idatzi, gipuzkoarrak gipuzkoeraz bakarrik. eta abar.

Eretxi oni gagokiozala, leengoan adiskide batek auxe esaten eustan: Orixe bizkaieraz idatzi ebal "Tormesko itsu-mutiila" izeneko euskal itzulpena. baiña urrundik igarten jakola itzultzailea gipuzkoarra izan zana. Onan izanda be, ez dot uste ori oker edo pekatu danik.

Gutako bakoitzaren euskalkia ezagutzen dogu ondoen. Egi-egia. Baiña beste euskalki batez ondo idazteko gai danak, ez dot ikusten zergaitik ezin dai-ken idatzi.

Txarto egin ete eban Txomin Agirre, idazle ospetsuak, bera ondarrutarra izanda, GAROA elabarria gipuzkoeraz idatzi ebalako? Eta Santi Onaindia karmeldarrak, goratxoago aitatutako EGOITZAK itzulpena, bera bizkaitarra izan arren, gipuzkoeraz idatzi ebalako? Niretzat, ez.

Arazo berau, zeatzago.

Euskeraz idazten dogunean, ez dot uste beste euskaldi bateko berba bat edo beste ekarteko eragozpenik izan bear gendukenik. Batzuek ez dabe jokaera au begi onez ikusten. Bizkaieraz idatzi ezkerro, bizkaierazko berbak bakarrik ekarri, eta kito, ez beste euskalki batekorik. Gipuzkoeraz idatzi ezkerro, bardin. eta abar.

Ez ete ebazan Axular maixuak, 1643-garren urtean leenengo aldiz GERO entzutetsua argitaratu zanean, euskalki bateko baiño geiagotako esakerak eta aditz-jokoak erabili? Lapurtarrezko eta gipuzkoerazko adizkerak ainbat eta ainbat aurki dagike-zuz.

Auxe dala esango neuke zuzenatariko era bat, euskalkiak, batabesteagandik urrundu bearrean,

alkarregana urreragotzeko, euskalkien arteko bitarte eta leizea aundiagotu ez, estuagotu eta medarregotu egin dakigun.

Mikel Zarate, aaztu-ezindakoaren berbak dator-daz burura:

"Bizkaieraz nator. Bizkaieraz, Bizkaikoa nazalako, bizkaieraz azi eta ezi ninduelako, ondoen ezagutzen dodan euskalkia bizkaiera dalako.

Bizkaieraz nator, bizkaieratik baturantz jote-ko asmotan, obeto esanda, batutik batuagorantz. Izan ere, bizkaiera euskera da, euskera jatorra, betiko euskeraren biotzean euskera. Eta euskera dan ezkerro, euskera batua ere bada, euskeraren sustraian, oiñarrian (edozein euskalkitako euskeraren sustraian, oiñarrian) dagoan euskera batua. betitik baturik dagoan euskera. Eta euskeraren oiñarrian dagoan euskera batu ori ezagutu bear dogu, leenengo eta bein, batutik batuago baterantz joateko, erdi baturik dagoana ere batzeko, batu barik dagoana ere, azkenez, batzeko" (Mikel Zarate, EUSKAL DEKLINABIDEA, 9 orr.).

Zentzun aundiko berbak, Mikel Zaraterenok. Edozein euskalkitan, edozein mendetako liburutan irakurri izan dodazan biotz-zirraragarrietako itzak niretzat. Edozein euskalkiri ezarri dakiokozanak, zalantzarik gabe.

Nik oso-osorik aintzat artzen ditut Mikel Zarate jakitunak bere liburuaren itzaurrean agertzen dauzan irizpidea eta jokabidea.

Zoritxarrez, alan da guzti be, irizpide eta jokabide burutsu eta neurritsu oneetatik urrun eta urrun dabilzala dirudi euskaltzale asko, zein alde bateko, zein besteko. Urrun eta urrun.

3.- ADITZA

"Euskeraren jatortasunik aundiena bere aditz edo berboan dago", diñosku Solozabal jaunak.

Beste orrenbeste esaten ni-neu ez nintzateke ausartuko.

Aditza dala-ta, liburu bi argitaratuta nago. Alan da guzti be. Paulinen esan ori lartxo ez ete dan deritxat.

Euskal aditza iru zutaberen gaiñean daukagula eregita, dirausku Patxi Altunak bere EUSKAL ADITZA izeneko liburuan (1971).

Eta zutabeok oneexek dirala: NOR, NORI eta NORK. Eta iru zutabe oneetatik LAU eratako adizkiak sortzen dirala:

- NOR zutabeari dagokiozanak.
- NOR-NORI zutabeari dagokiozanak. Bi-biok aditz igarogaxaren adizkerak.
- NOR-NORK zutabearen inguruan sailkatuak.
- NOR-NORI-NORK zutabeari ezarriak. Azkenengo bitzuok aditz igarokariarenak.

Gaur-gaur eta aspaldiko urteotatik onantza, euskal aditza irakatsi, aitatutako zutabeok oiñarriztat artuta, egin izan oi da. Au da: zutabe bakoitzaren inguruan berari dagokiozan adizkerak sailkaturik emoten da aditzaren irakaspena.

Irakasbide au leenengo aldiz irakaskuntzara ekarri ebana, Aita Isidor Baztarrika beneditarra izan zan bere ADITZA (M todo NOR-NORI-NORK o el secreto del verbo vasco) deritxan liburuan (Lazkao, 1968).

Izen oneen asmatzaillea Elbira Zipritia izan ete zan iñoiz entzun izan dot. Baleiteke. Baiña zutabeok oiñarriztat arturik, aditza irakasteko bidea edo era, liburu baten argitaraturik, aitatu dodan Aita Isidor Baztarrikaren idazkunean leenengo bider agertu zan, naiko illuntxo etorri arren. Urrengo, irakasbide berori, obetuta, aditz guztiari, zein aditz bakuna edo sintetikoari zein laguntzailledunari egokiturik, Morgan bizi gintzala, bizkaierazko aditzari buruzko idaztitan etorri zan, 1970-garren urtean. Geroago, beste liburu batzuetan: Patxi Altunaren "Euskal aditza" izenekoan (1971), Larresororen "Euskera batua zertan den" deritxanakoan (1974), eta abar.

Gaur-egun irakaskibe au bazter guztietara zabal-duta daukagu, Euskaltzaindiak berak be onartu dau-larik.

Egiari zordun gaiakoz, ezta? Ba, orixe da egia.

Euskal aditzaren jakintzazko antolabide au ez dot ikusten Paulin irakaslearen idazlanean. Maixu-maillako lana danez, ondotxo etorriko litzakiokela dirudit.

"Aditza izkuntzaren ardatza, beti, joango da euskeraren punta punta nagusian", irakurten dot Solozabal adiskidearen lan onetan.

Nik-neuk ez neuke esakuntza ori izenpetuko. Bein edo bein, bai. Beti-beti, ez. Noiz bai, eta noiz ez? Ondorengo atalean ikusiko.

4.- JOSKERA ETA GALDEGAIA

Joskera eta galdegaia, edo "elemento inquirido" (Azkueren eta Paulin beraren esanetan) dirala-ta, zerbait badakar idazlan orrek, baiña gauza aundi-aundirik, ez.

Ementxe argituko dot goratxoago gogora ekarri dodan jakinkizuna.

Euskal joskera jatorraren eta bene-benetakoaren ardatza eta esaldiaren "puntaren puntan" dagoana, ez dabeti aditza. Euskal esakunaren osagai nagusia *galdegaia* da, edo "elemento adquirido" dalako orixe berori, maixu aundiei jaramon egiten badautsegu beintzat. Euskeraren "punta punta nagusian", edo erpin-erpin eta gaillur-gaillurrean daukagun jakinkizuna edo adierazkizuna. Aditza, beste edozein itz legez, bigarren maillan dago. Galdegaia aditza bera danean, orduan bai, esaldiaren "puntaren puntan" eukiko dogu. Bestetan, ez.

Ori bai, euskeraz jator, artez eta egoki idazteko, galdegaia dan itza edo itzak aditzaren aurre-aurrean ezarri bear dira, bitartean beste itzik idatzi barik.

Maixu aundiek emoten daben idaztarau nagusi au bete ezkeru, joskera jatorra izango da beti, esaldiaren beste berbak aurrekaldean zein bestekaldean ipiñi arren.

Galdegaia dala-ta, lantxo bat argitaratu neban orain amasei urte ZER aldizkarian. Lantxo arek ez dot uste gaukotasunik eta oraingotasunik galdu dituanik, maixu aundien irakatsia, nire ustez, naiko argi labor-bilduta antxe dator-eta.

Galdegaia aditza bera danean zer egin bear dan baiña, ez neban lan aretan azaldu, urrengo baterako itxi neban-eta. Ez dakit lan ori burutu neban ala ez. Ementxe berton argituko dot zerbait, orrexegaitik.

Esaldiaren galdegaia aditza danean, era bitako esakunak sortzen dira euskeraz:

A.- Aditza bera jokatu badadi, adiz ori bir-esan egin daiteke.

Ikusi:

- "Une onetan zer egiten dau Iñakik?", galde egingo bagendu, onan erantzun daiteke:

- "Une Onetan Iñaki IBILI-DABIL", edo "ETORRI-DATOR", eta abar.

Esakunaren beste zatiak galdegaia dan aditzaren aurrekaldean zein bestekaldean ezarri daitezke:

- "Iñaki IBILI-DABIL une onetan". Edo:

- "Une onetan IBILI-DABIL Iñaki". Edo:

- "IBILI-DABIL Iñaki une onetan".

Edozein eratan euskal joskera egokia da.

Esakera au kontuan arturik, oso esakuntza txai-roak eta dotoreak daukaz euskerak.

Adibidez:

- "Onek JAKIN-DAKI gero!" (Saber es lo que sabe ste).

- "Onek JAKIN ETA JAKIN-DAKP" (Este sabe mucho).

Tamalez, onango esaldi jatorrak eta politikak galduz eta galduz doakiguz (gaur gazteleraren eragiñez).

– "Jon sabe mucho", gaztelerazko esakuna, argi-bidez, gaur onan itzuliko leuke euskerara:

– "Jonek ASKO daki".

Euskaldun-euskaldunak askoz dotoreago:

– "Jonek JAKIN eta JAKIN-DAKI". Ederto!

– "Onek ASKO ikaste dau" (Este aprende mucho). Askoz obeto:

– "Oalek IKASI eta IKASI egiten dau". Oso ederto!

Onango esaldiak, idatzi egiten dogunean, sarri-sarri erabili bear gendukez, euskaldun baten entzumenerako ("belarrirako") ondo baiño obeto datoz eta.

B.– Aditza esaldiaren galdegaia izan eta aditz ori jokatu ezin bada, "EGIN" aditzaren bidez emon oi digu aditzera galdegaia aditza bera dala.

Emen Paulinek berak dakar argibide egoki bat.

"Zer egin dau aitak pistia ikusikeran?". Ta semeak erantzuten dautso: Aitak pistia ikusikeran, artu, jo eta il *egin* dau. Ta euskera biribil biribil geratu da" Ederto esanda!

Aditza jokatu arren, esakera au ekarri daiteke, nai izan ezker.

– "Zer egin dozue gaur goizean".

– "Gaur goizean IBILI ETA IBILI *egin* dogu", edo: "IKASI ETA IKASI *egin* dogu"...

Galdegaiari jaramon gutxi egiten dautsoela uste dot Iparraldeko euskaldunek. Idazle zaarrak be ez ziran maixu onak izan euskal joskerari gagokiozala. PERU ABARKA irakurri baino ez daukagu orretzaz jabetzeko. An irakurten dogun euskerak gure "belarrietan" min egiten dau. Gure gizaldi onetako *obekuntza* dala esango neuke joskerari buruzko zati au.

5.- ATZIZKIAK

Badaukagu euskaldunok euskeraren barrutian arlo bat landu barik daukaguna, edo gutxi-gutxi landu doguna. Ez bakarrik ez-ikasi eta ez-jakin diranentzat, baita ustez jakitun eta euskaltzale diranentzat be.

Auxe: ATZIZKI-MOLTZOA edo SAILA. Eta au galtze aundia dala euskerarentzat esango neuke.

Solozabal jaunak berak, maixu edo akademi-maillako lan bat egin, eta atzizkiak aitatu be ez ditu egiten. Utsune aundia beraren idazlanean. Baiña ori ez da beraren errua, euskaldun guztiona baiño.

Euskera aberatsa, esanguratsua, oso zeatza, zernai adierazoteko gaitasun berezia daukan izkuntza baldin bada, –eta niretzat onangoxea da– ori ez da aditzagaitik, ez deklinabidegaitik, ez joskeragaitik be, batez be, atzizkiakaitik da, edo atzizki ugari-ugari dituan berbakuntza dalako.

Euskera izkuntza "jakintsua" dogula, dirausku Paulinek berak nire ustez, izkuntza "jakintsua" barik, "jakituriatzko" izkuntza, edo "jakituria" darion izkuntza esanda obeto legoke. Eta nun agertzen da euskeraren "jakitun" ori? Ondasuntegi bardin bagako onen erabilkuntzan, besteak beste.

Aita Plazido Mujikak bere gaztelerazko iztegi mardularen azken orrietan dakarren atzizki-moltzoa, geroago "Afijos vascos" izena ezarrita liburuxka baten argitaratu ebana, Azkuek bere "Morfologia vasca"-n dakarren saila eta onango beste zerbait baiño ez daukagu arlo oni buruz, nik daki-dala.

Eta ori zer da? Ezer ez, edo gutxi-gutxi, atzizkiek euskerarentzat dauken garrantzirako.

Aita Plazido Mujikak aitaturiko liburuxkaren sarreran auxe diñosku (neuk euskeratuta):

"Izkien zerrenda au... ZORTZIREUN izkitarra, gutxi gorabeera, eltzen da.

Gure erria, euskeraren literatur-alorra gutxi landu daualako, *ez da konturatzen* gure izkien baliokizunaz eta esangureaz. *Eta jakin be ez daki*. Izkiotatik batzuk aurre-izkiak (prefijos) dira, beste, batzuk erdizkiak (infijos), baiña geien-geienak ATZIZKIAK (SUFIJOS).

Orregaitik, ez jako bururatzen atzizkiok erabilgarri diranik teknikaren garapenak eta kultur-sailak eskatzen dituen gogai eta itz barriak agerrazoteko.

Gure atzizki ugari-ugariok ezagutu eta euretaz jakin-dakigula haliatuko bagintzaz, ^gure milla-urtetako izkuntza au geroago eta

EUSKAL ASTEA BIZKAIAN "EUSKERAZALEAK" ERATUA

NON: Eskolapioen ikastetxean (Alda. Rekalde, 19)

NOZ: 1993'ko azillaren 14'etik 18'ra.

ORDUA: Arratzaldeko 8'rak.

GAIK ETA IZLARIAK (URRENGO ZENBAKIAN AGER- TUKO DIRA)

aberatsago eta harriztatua egingo ke".

Azaltzen diardudanaren agergerri, argibide bat ekarriko dot.

"(Jrduen Liturgia" izeneko liburuan eta Ebanjelioen euskerazko itzpenetan. "bizia" eta "bizitza" itzak esangura hardin bardi ekoak balitzaz tez, naas-ri:Mi, iku :trn dodaz. Batean "bizia", ` _ e.steal?

rrr.", b zr.rtrriko bereizkuntza barik. =aiña 'bizia' eta "bizitza" ez dira hardin,, "erioa"

eñ. bTio :a" bardin ez diranez, r a" "vida en n,eneral" da, edo , ida en poten-` 3C_1snbilir:lad vlda" esang adUkena, ,1 a" i ,an lertekbna. Pe it.erik wz.

i?itza", atera, -TZA atzizki;= gaz, vida EN r t ia. "bizia" "bizitza" bitartuta, "Erioa" ie... 1t ,r reallzarsc) +:ta eriotza" (17)aert de 30 _ : } diran antzera.

Au dala-ta, LA VIDA", Barri Onak dakarren rsak laa.. "NEU NAZ BIZIA" esanen eus-rara itzultze:rr. j>k:,r .1_ Gu ala derirxrt. Jaungoikoa, rinistun gareanorltzai, ez da "bizia", "vlda en potencia", edo "posibilidad de vida" oakaarrik.. atingo k,aa guretzat "BIZITZA" da, edo EN AC T , , e:io RLENITIID DE T?S; A' . ``i='71T7.A" bcl> bettc 1' Yti... an ilara asi

.Ainbat egun .tan `sapikoa e ul i ina aerb, aSa7,l.dd,i naz, e4a f)ra.in s 1 r(a, r`Z~ ""Ik:l.

Paulin a(i kidE '-,fent b,na i buruz, ,i'tf i: , oro-ar, enxbn a...! ir iiat:...Dtsarit z . ltr in itukii 1 okel_ Euskerar,ira aundia egin daua-na, begien ibii daukagu.

Alan eta guzi ttr, i; 1 :aien, eduki osoa eta zerdan luze-%abaia 1-y anatli nus lzang., baleu, beste bid _lei luze bat egin bearra leukeia esango neuke.

Paulin idazlearvxi,z.at ciii;sdan au neure buruarentzat diñot, eta gañontzeko euskaldun geien-geienentzat.

Gutziz sinistuta nago: Euskeraren ERDIRIK be ez dakigula euskaldunok, geienok beñik-bein.

Ori gutariko bakoitzaren euskalkiaren barrutian. Gogora ekarri ATZIZKIAK atalean argitu doguna. Or gabiltza bearbada, burua gora-gora eta arro-arro dogula, eta euskeraren ZATITXO bat bakarrik jakin.

Eta gure euskalkitik kanpora, zer?

Zer dakigu Iparraldeko euskalkietaz? Ni-neu —lo-tsaz beterik dagit autorkuntza au— naiko antzu nago.

\x;aar aundiarr l GERO iru edo lau bidar `akurrita uki arren. Eta Iparraldeko euskera be euskera da, gure i bezain jatrrra, narralltzizkoa eta jakingarria.

EⁿZⁱ T⁰¹ ZA iTiN AUNDI ORI!!!

Pedro PUX, iN A.. arabarrak.

IPUIN-SARIKETA

(BILBAO 'K OL_1)A .ARE ! .7 %x

| US Kc:l? < .ZAI EAK ALKARTEA 'k, urte rlt7tletan !ez aurten . r^ruixt-sariketea irairitru. da ii. nilta'r1 le auak oneik dirala:

fial r .]k r skeTa{z eta erriak erabilten dauari rus .aikia erabilliaz idatziak izan bearkn dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten darl

Jpu;f^oak asmatu-rikoak edo errian batuak dira, ez idatzita dagozanak edo itzul-dier. <k.

Iruz. rta iru orrialdetik. laa orrialdera :d <; iñe idatzita eta bitarte bi dirala. ^saria irabazt r dabenak LEI:. en argit..r 3tifko dira, ar^r ifabazter: ez dabenak b~ bai r(aiiia rerl barrenean idazleak bairlerla etnoten dauar-ean.

Aizili.areri azkenerako EUSKERAZALEAK ALE,AR EA'ren etx_eaii ;Bilbao'ko t~oloar de Larr_tegi, 14, 2^a eskola.? egon ;eas dabe. Abenduaren azkenerako emongo da. maiko n erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be albai: lasterren.

Sariak lau izango dira:

- 1^a 40.000 pezeta
- 2^a 30.000 pezeta
- 3^a 20.000 pezeta
- 4^a 10.000 pezeta

Ipuinak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.


EUSKERAZALEAK



abba

Aitatxo, emen dakertzut
nere illogatzoa oso
gaitza delako


1x2
ANGELES
ARCANGEL
CORDS
SERAFIN
TRONOS



.E.r".d dz_ eGE/S=:; f-, a 1. iz fe
f'te LA CU, de/2 a"
oy7 ne r-A..0

eta an egon
bearko dabela
betirako sutan.
EZ DA EGIA?

ORTODOXIAK
Dinona.



ori ez dozu zeupel,
finisten.

COOPER/94

EZ DUTE JESUS
Jainkoa danik sinisten?
Ajolarik?

Sinisten aldute
beltzak Jainkoar-
ren seme direnik?

ZER Ajola zait eutanasia
Ruanda'ko umetxoak iltzen
dituzten bitartean?

/ detriGe E.~ord-ll

11 c na.

6m ie

av-C -l tie rPZ .4C

n1:k dr'n/tr/a aP e r/e

Ze importa zait Jesusen gorputz-
adolak gurtzea, gero SIDA duten
gorpuak naska ematen ba'die?

Zorioneko
ortopraxis
gabeko
ortodoxia!

COPIES/94

11»

AMWZOIHW
U»11

H:
H:
W:
111:

AGINTEA, DIRUA ETA POLITIKA

Alkarren artean indar-jokoan gabiltza beti: kiroletan bezela agintean ere.

Guztiok agindu nai.

Diruak dakar aginpidea. Politikak areago.

Politikak du indarrak aundiena; orregaitik dabill mundu osoa bata bestearekin nor-geiagoka, burrukan, politika-arloan.

Ez da gaurko gaitza; betikoa. baizik.

Orain bi-miIIa urte inguru, kamiñoan-zear Jesus zijoan bere lagunekin. Lagun oiek, erri xumearen artetik jasoak, mundu guztietako pasioz beteta zeuden.

—Ni i baiño geiago nauk.

—Ago ixilik, ni Jesus'en lengusua nok-eta...

—Bere ondoren lenen asi zana, zein duk? Neri dagokit lenen aulkia...

Eztabaida, ixkanbilla, zarata...

Jesusek aldamenetik:

—Zer umekeri darabilzute esku-arteetan?

—Ba, Jauna, nor-Qeigoko gebiltzan...

Jesusek errukiz eta maitekor begiratu zien:

—Zuen artean lenen izan nai duena, izan bedi aizken.

—Zer...?

—Aizken eta beste guztien serbitzari.

—Baiña, nola...?

—Badakizute emen zer gertatzen dan: agintaritzza arrapatzen duten guztiek, erria zapaltzen dutela, jauntxokeriak egiñaz erriaren bizkarretik. Ez bedi zuen artean orrelakorik gertatu.

Zapalketak, beraz, betikoak. Ordukoak eta gaurkoak. Egundokoak.

Gaur-egun zapalketak egotea ez da batere arritzekoa. Arritze-

koa dana auxe da: Jesusen sinismena aitortzen dutenen artean zapalketak izatea.

Badira.

Eta, nolakoak?

Indarkeriz egindako zapalketa oieri indarrez erantzuten zaioanean, orduan, gaiñekoak azpikoa geroz-eta-geiago zapaldu oi du.

Bizirik larrutu arte, zapaldu ere.

Beretzen eta paketzen ez diran menperatuak, giltzapera.

Bere buruaren lokarriak askatu nairik burrukatzen dutenak, giltzapera.

Aberri menperatuaren alde burrukatzen dutenak, giltzapera.

"Giltzapian sartu naute poliki-poliki;

negar egingo luke nere amak baleki..." Iparragirrerena.

Erregeak bere aginpideari asiera ona emateko, barrukoak kalera ateratzea erabaki zuan. Baiña, beti izaten da bairen bat, asko barruan daude oraindik.

Zergaitik?

Erriko talde bat barruan dalarik, pakea sustraitzen ez da erreza. Barruko oiek kalera izan ditezela askok eta askok eskatu arren, barrukoak barruan diaute.

Eta barrutik irtetzeko esperantza nun da?

Zapalkeriak irauten duan artean, amnistia orokorra eta danentzako ez dan artean, pakeak ez du oiñaririk izango. Berritik sortzen ari zaigun gorputz onek minbizia izango du odolean; sitsakjandako egunakin ariko gera etxea jasotzen; zuloa izango etxearen oiñarriak azpitik...

* *

—Zuen artean aginpiedea duenak izan bedi aizken eta beste guztien serbitzari.

Moroentzako esan ote zan?

A. Arrinda

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-ko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoi. 48001 BILBAO.

B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ



Eusko Jaurlaritzaren

Laguntzaz.

Kultura Saila

EUSKERAZ7LE~K

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO



Betidanik.

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DA • EIAGO E KINTZEN AU NIK

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.
Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta ori
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Baiña leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.